

SEXU HEZIKETA XXI. MENDEAN

AURKIBIDEA

0. SARRERA

1. TESTUINGURUA

2. HEZKUNTZA FORMALA

3. HEZKUNTZA INFORMALA

4. FEMINISMOA ETA SEXU HEZIKETA

5. MITOAK

6. ESPERIENTZIA PERTSONALAK

7. HAUSNARKETA

8. ERREFERENTZIAK

0. SARRERA

Heziketa sexualaren kontzeptuak garapenaren garai guztietako giza sexualitateari buruzko irakaskuntza, zabalkundea eta hedapenari buruzko jarduera multzoari erreferentzia egiten dio. Bertan, emakumezko eta gizonezko ugalketa-sistema, orientazio sexuala, sexu-harremanak, familia-plangintza eta antisorgailuen erabilpena, sexu segurua, erreprodukzioa (eta, zehazkiago, giza erreprodukzioa), sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak, genero-ikerketak eta giza sexualitatearen beste alderdi batzuk jorratzen dira helburu batekin, hau da, sexu eta ugalketa osasun egoera jakin bat lortzea eta osasun orokorreko egoera ona izatea, bai fisiko zein emozionala.

Honako gai hau hautatzea arrazoi pertsonalengatik izan zen hasiera batean, atzera begirada bota genuen eta gure hezkuntza prozesuetan sexu heziketak zer garrantzia izan duen, nola landu den eta nola bizi izan dugun galdetu genion geure buruari. Arazoa identifikatu genuen, sexu heziketak gure bizitzetan izan duen papera urria izan da eta izan duguna, nahiko eskasa eta ez erabilgarria errealitateari aplikatuta. Sexuak gizakion bizitzetan duen garrantzia hain handia baldin bada, zergatik ez zaio garrantzirik ematen? eta zergatik ez, sexua modu osasuntsu batean bizitzen ikasi? Galdera horiek mugituta hasi ginen lanean. Aurrera egin ahala ohartu ginen, hemen ere, baztertuak ditugula eta arazoa uste baino larriago zela. Baztertuak berriro ere emakumeak, homosexualak, transexualak, *queer* ... eta "normaltasunetik" ateratzen diren bestelako kolektiboak dira. Arazoa ez da indibiduala, sistemikoa baizik. Sistema da baztertzaila kasu honetan ere. Sexua, hetero- patriarkatuak ezartzen dituen arauen arabera mugitua izan da betidanik, hau da, sexuak ez du izan ausazko bilakaera bat, beti ere gizonaren pribilegioen aldera egin du balantzak eta izan duen izaera ezarria izan da. Gaur egun sexu-heziketa osasungarri bat, gizartean dagoen balantza berdintzeko tresna bezala erabili daitekeela ikusten dugu, sexu indarkeria bezalako arazo sistemikoekin behingoz amaitzeko.

Informazio guztiari aurre egiteko, gure lana zenbait ataletan banatuko dugu. Hasteko, gaia kokatzeko testuingurua aurkituko dugu non gaur egungo gizarteak duen ikuspegia azalduko dugun; ondoren, hezkuntzari lerro batzuk eskainiko dizkiogu, bertan formala eta informala ezberdinduko ditugularik. Lehenengoan eskolari buruz arituko gara, eta bigarreanean berriz, familia eta pornografiaren inguruan; Jarraitzeko, feminismoak sexu-heziketaren inguruko gizarteratze horri ematen dion erantzuna zein den aztertuko dugu, honen barnean, postpornoa landuz. Gero, gizartean presente dauden mitoak eta tabuak aurkeztuko ditugu, errealitateari hurbilketa bat egin nahian. Amaitzeko, guk geuk bizitako esperientzia pertsonal batzuk plazaratuko ditugu gaur egun bizi dugun egoera aldarrikatzeko.

1. TESTUINGURUA

Bazterketa egiturazko izaera duen prozesu dinamiko bat da, dimentsio aniztuna eta metatze-prozesu baten ondorioa dena. Esan beharra dago, gizarteak eta testuinguru sozio-ekonomiko zein kulturalak honengan eragin handia duela, bazterketa prozesua erraztu dezaketen faktoreak anitzak izan daitezkeelarik. Hala nola, faktore ekonomikoak, hezkuntza, lana, osasuna, harremanak, etxebizitza faktoreak eta abar (Llena, 2011). Hau kontuan harturik, bazterketa sexu-heziketarekin lotzeko beharra ikusten dugu, izan ere, heziketaren alderdi honetan ere hainbat kolektiboen aurkako diskriminazioa zein bestelako botere-harremanak ezartzen dira; hala nola, emakume zein LGTBIQ kolektiboekiko zapalkuntza.

Honen aurrean, behartuak gaude sexu-heziketan inklusioa bultzatzera. Europar Batasuneko Kontseiluaren (2004) arabera, gizarteratzea edo inklusioa bazterketa egoeran aurkitzen diren horiek euren gizartean erabat parte hartu ahal izateko – bizitza ekonomiko, kultural eta sozialean osoki parte hartzeko- beharrezko dituzten aukera eta baliabideak lortzen dituztela ziurtatzen duen prozesua da. Beraz, lan hau osatzen duten ataletan, sexu-heziketaren barne dauden bazterketa egoeren inguruan hausnartu eta hauei irtenbide inklusibo bat bultzatzeko beharraren inguruan arituko gara. Hala ere, beharrezko deritzogu hurrengo lerroetan sexu-heziketaren testuinguraketa bat egitea.

Sexua urte askoan izan (eta oraindik) da polemika eta eztabaiden erdigune, geure ingurutik etengabe jasotzen ditugun informazio iturrien ondorioz. Izan ere, jasotzen ditugun eraginaren arabera izango da jendearekiko eta pertsona bezala dituzten ezaugarri jakin batzuekiko ditugun iritzien onartze- edota errefusatze-maila (Correa, Jaramillo & Ucrós, 1972). Sanctuaryk (1971) dion moduan, sexualitatea gizartean modu oker batean ulertzen dugu. Honen ustetan, sexualitatea pertsona bakoitzak bere inguruko jendearekiko dituen erreakzio multzoak dira, norberaren generoak baldintzatzen dituenak. Hau da, geure sexualitatea etengabe adierazten dugu; gure alboan dagoen pertsonari hitz egitean, egoera zailei erantzuna ematerakoan, telesailen, notizien edota abisuen aurrean izaten ditugun erreakzioetan, eta baita mugitzen ari garenean ere.

Sexu-heziketa beraz, pertsona batek bizitza duin eta harreman osasuntsuak izateko ezinbestekoa duen heziketa bezala ulertu dezakegu. Pertsonaren garapen integrala bermatu ahal izateko, ezin dugu garapen horretan sexualitateak gure bizitzetan duen garrantzia ahaztu. Beste modu batera esanda, sexu-heziketak geure buruarekiko eta baita besteekiko onarpena ere garatzen laguntzen digu, sexualitatea jarrera kritiko, osasuntsu eta orekatuetan oinarrituz bizitzen laguntzen digularik.

Aurreiritzi sozial eta pertsonalek zuzenki eragiten dute sexu-heziketan eta pertsonak euren sexualitatea bizitzeko duten moduan; hau da, beraien egunerokoa bizitzeko moduan. Historian zehar gailendu diren alderdi erlijioso zein moralek ere sexualitateari egiten zaizkien

epaiketak eta balioak baldintzatzen dituzte. Hau horrela izanik, geure gizartean normalizat hartzen diren barneratutako erruki sentimendua, kontzeptu nahiz bizipenen nahasmenduak zein sexuala eta pertsonalarekiko bereizketa etengabeak ikus ditzakegu maiz. Aldi berean, ezberdintasun esanguratsu bat dago informazio sexualaren inguruan gure gizartea zatitzen duten bi generoen artean: emakume eta gizonen artean hain zuzen ere. Modu honetan, generoen arteko sexu-harreman eta sexu-jarreretan ere, ezberdintasun nabarmenak hauteman daitezke (Correa, Jaramillo & Ucrós, 1972).

2. HEZKUNTZA FORMALA

Gaur egun, eskolak dira haur eta nerabeentzako sozializazio gune garrantzitsuak, bertan ezagutzen dira elkar, harremantzen dira, balio eta balore ezberdinak barneratzen dituzte... Hezkuntza formala izango da oinarrizko baloreak bereganatzeko espazioa, baita gizartean bizitzeko beharrezkoak diren tresnak lortzeko gunea ere.

Hezkuntza formalaz hitz egiten dugunean, eskolaz ari gara hitz egiten. Gaur egun, Espainiako Estatuan haur guztiek dute eskolara joateko derrigortasuna eta derrigortasun hau 6-16 urte bitartean ematen da. Beraz, eskolaren nagusitasuna oso agerikoa da. Morgadek (2006) dioen bezala, eskola erreferentziazko tokia izaten jarraitzen du gaur egun ere gazteen artean.

Eskolan, gai ezberdinak jorratzen dira, hala nola, matematikak, hizkuntzak, zientziak edo geografia. Hauekin gure ezagutza garatzen joaten gara eta baita norberaren garapen pertsonala ere. Gaur egun, ikasgai hauei izugarritzko garrantzia ematen zaie, izan ere, gaur egungo gizartean hauek dira gailentzen diren balioak. Baina hauetaz gain, bada beste bat horrenbesteko garrantzia hartzen ez duena eta hartu beharko lukeena: sexualitatea.

Ezin dezakegu ukatu hezkuntza afektibo-sexuala hezkuntza sisteman ematen den haurren arteko sozializazioaren errealitatea bat denik (Caballos, 2011). Beraz, aurretik aipatu bezala, gaur egun beste ikasgai batzuk pisu handiena izan arren, uste dugu, sexualitatearen ikasgaiak besteek bezainbesteko pisua izan beharko zuela. Rogers-ek (1994) dioen bezala, ikasle guztiek heziketa sexualean matematika edo ingelesean bezainbeste trebatu behar dute.

Legeei begiraturaz gero, ikus dezakegu hauek ere espazio berezia ematen diotela sexualitateari, izan ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultur Sailak (2013) adierazten duen bezala, hezkuntzaren helburu bat “harreman afektibo-sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezte, aniztasun sexualean eta emakumezkoen eta gizezkoen berdintasunean oinarrituta” da.

Gaur egun, txikitatik lantzen da sexualitatea, batzuetan modu esplizituan eta beste batzuetan inplizituan. Jaiotzen garen momentutik sexu bat esleitzen zaigu eta honekin biziko gara bizi guztia. Eskolan, sexu honen arabera banatzen gaituzte eta gure sexuarekiko ezaugarriak

urtetik urte ikasten ditugu. Batzuetan, ipuinen bidez barneratzen ditugu sexualitateari buruzko kontzeptuak, beste batzuetan, berriz, arlo akademikoan ikasitako kontzeptuen bidez. Urteak aurrera egin ahala, sexualitatean esperimentatzen hasten gara eta eskolak ere bere neurriak hartzen ditu honetarako. Hala, nerabegarora heltzean, tailer ezberdinen bidez handitzen dugu gure jakintza. Baina, urte guzti hauetako jakintzak beti modelo berdinean irakasten dira, heterosexualitatean oinarrituak, hain zuzen ere. Hau da, eskolak genero identitate “normalak” identitate heterosexualarekin erlazionatzen ditu (Lopes, 1999).

Guzti hau oso argi ikus dezakegu eskola liburuetan, izan ere, hauetan soilik “mutil” edo “neska” sexuko pertsonak irakasten dizkigute, intersexualitateari tokirik utzi gabe, adibidez. Gainera, sexualitea haurrak izatearekin erlazionatzen da zuzenki. Modu honetan, hurrei mutil eta neska figurak irakasten zaizkie berriz ere eta hurrek bikoteak neska eta mutilen artean osatzen direla barneratzen dute, ondoren beraiek hau erreproduzitzen. Modu sutilago baten bada ere, neska bati “ze mutil gustatzen zaizu?” bezalako galderak egiten zaizkio eta modu honetan ere ideia heterosexualak barneratzen ari dira.

Honen arrazoi nagusia hezitzaileen formazio gabezia dela esan dezakegu. Azken urte hauetan, jendartean eraldaketa nabarmenak eman diren arren, ikusten da oraindik ere eskolaren eremuan aurrerapausoak emateke daudela. Caballos-ek (2011) dioen bezala, irakaslegoaren portzentai altuenak uste du homosexualitatea heterosexualitatearen azpitik dagoela, ikasle homosexuali orientazio bat eskaintzeko formatuak ez daudelako. Beraz, egoera hau ikusita, hezitzaileek beraien formazioa landu behar dutela uste dugu, modu honetan, ikasleei errealitatean dauden eredu anitzei buruzko informazioa eman ahal izateko eta heterosexualitatean soilik ez erortzeko. Honi gehitu nahi diogu Eusko Jaurlaritzako txostenean (2013) agertzen den ideia gako bat: hezkuntza sexuala birpentsatu behar dugu, aldaketarako oinarria izan dadin.

Heterosexualitatearen gaia alde batera utziz, atentzioa deitu digu eskolan heziketa sexualak duen helburu nagusiak, hau da, prebentzioa eta kontentzioa. Eskolaren bidez, haur eta nerabeei prebentziorako bideak irakasten zaie, sexua plazera ere izan daitekeela alde batera utziz. Honekin ikusten dugu, hezkuntzak sexualitatearekiko duen helburua gure gorputzaren kontentzioa dela (Morgade, 2006).

Jakin badakigu, gaur egun, nerabeei sexu-harreman goiztiarrak izaten dituztela. Torriente et al. (2010) gai honen inguruan hitz egiten dute esanez nerabeei geroz eta lehenago izaten dituztela harreman-sexualak. Hau zehatzago adierazteko, ARGIA-ko (d. g.) web orrialdera jo dugu, izan ere, bertan plazaratutako ikerketaren arabera, neska eta mutilen artean azken urteotan urte bete aurreratu da lehenengo harreman sexuala izateko unea.

Gure ustez, hau arrazoi garrantzitsu bat izan daiteke hezkuntzako profesionalak kezkatzeko eta ondorioz, eskolaren bidez gai honekiko prebentzioan jartzeko indar guztiak. Izan ere, geroz eta ohikoagoak dira elkarte ezberdinetatik eskoletan ematen diren tailer eta hitzaldiak.

Guri, aldiz, atentzioa deitu digu guzti hauetan kondoiaren erabileraren eta gaixotasunen transmisioen inguruan hitz egiten dela, sexuarekiko gainontzeko alderdiak alde batera utziz, hala nola, desioa eta gozamena.

Guzti honekin ikusten dugu, hezkuntzan sexualitatea presente dagoela. Hala ere, badirudi hezkuntzak beste agente batzuen eskuetan utzi nahi duela sexualitatearekiko erantzukizun nagusia: familiaren esku. Esparru honen inguruan hurrengo atalean arituko gara, baina zehaztapen bat egitea nahiko genuke, izan ere, esan bezala, sexualitatearen gaia familiaren zeregina dela pentsatu ohi da. Epstein eta Johnstonek (1994) esaten dutenaren arabera, irakasleen artean sexu-heziketaren eta genero identitatearen eraikitzearen inguruan dagoen desadostasuna dikotomia pribatu-publikoan oinarritzen da, sexualitatea esparru pribatuari (familiari) dagokion alderdi gisa ikusita.

Gure aburuz, pertsona bat jaiotzen den momentutik komunitate guztia da pertsona honen hezkuntzaren arduraduna, ezin diezaiokegu esparru bati soilik delegatu hezkuntzaren erantzukizuna. Izan ere, haurra jaiotzen den momentutik etengabe ari da ikasten: abestien bidez, telebistaren bidez, gurasoak behatuz, kalean jolasten, amonarekin hizketan, eskolan... Hau da, momentu oro dago hartu-emanen kanpotik jasotzen duenarekin. Hori horrela izanik, garrantzitsua iruditzen zaigu eskolan lantzen diren ideiak eta eskolatik kanpo lantzen direnak berdinak izatea, koordinatuak egotea. Modu honetan, haurrak jasotzen dituen mezuak berdinak izango dira.

Bestalde, Cuban eginiko ikerketa batean ikusi da nerabeek heziketa sexualaren inguruan duten jakintza oraindik ez dela nahikoa eta bertan esaten da familiak paper garrantzitsuagoa jokatu behar dutela (Torriente et al., 2010). Eskolaren aldetik heziketa sexuala jorratzeko ahalegin handiak egiten direla ezin dugu ukatu, baina esan beharra dago, jendarte osoan jarri behar dela indarra gai honi ondo eusteko. Horretarako, komunitate guztiak filosofia bat hartu behar duela uste dugu, hau da norabide bat. Beste modu batera esanda, ezin dezakegu ez eskolaren ez familiaren gain soilik utzi heziketa sexuala.

Laburbilduz, hezkuntzan hitz egiten den sexualitatea gizakien erreprodukzioarekin erlazionatua dago, izan ere, bizitzaz hitz egiten duten ikuspegi modernoek ere giza gorputza gure espeziea bizirik irauteko moduekin lotzen dute, hots, ama izatearekin. Hau horrela izanik, neskak dira heziketa-sexualeko klaseen hartzaile nagusiak (Morgade, 2006), eta prebentzioa helburu nagusia da, gozamena eta desioa albo batera uzten direlarik. Gainera, nahiz eta aurrerapenak egin diren, oraindik ere zaila egiten da homosexualitatearen eta beste sexualitate moten inguruko informazioa jasotzea, biziraupena helburua izanik, erlazionatzeko modu bakarrez hitz egiten delako, “normala” eta “pentsagarria” dena: heterosexuala. Honen aurrean, hezkuntza afektibo-sexualaren birplanteamendua ikusten dugu aldaketarako bide bezala. Beharrezkoa da elkarrekin lan egitea eta sexualitatea ikusteko era aldatzea, baita planteatutako helburuak eta edukiak ere.

3. HEZKUNTZA INFORMALA

Hezkuntza informalaren inguruan hitz egiten dugunean, ezinbestekoa dugu familiaren inguruan hitz egitea. Hala, familia pertsonaren lehenengo agente soziala dugu eta honek, izugarritzko garrantzia du heziketan. Esan bezala, gaur egun, hezkuntza formalaz gain, familiak ere paper garrantzitsua hartzen du pertsonaren heziketan, baina heziketa hori ez da mugatzen baloreak, erlazio pertsonalak, jarrerak eta ideologiak erakustera, baizik eta hortik haratago dauden alderdiak transmititu behar ditu, hala nola, heziketa sexuala.

Gaur egun, hurrek duten eskubide batean bilakatu da heziketa sexuala jasotzea. Eskubide hau, hein batean bermatzen dela ikusi dugu; izan ere, Euskal Herrian sexu heziketako 0-40 ordu ematen dira (Garcia, 2006). Hala ere, haur batek sexualitatearen inguruko formazioa jasotzeko nahikoa ez direla iruditzen zaigu 40 ordu horiek. Honekin batera, familiak esku hartu eta paper garrantzitsua hartu beharko lukeela iruditzen zaigu haurren heziketa osatuagoa izan dadin. Hori gutxi balitz, Puertok (1997) dioenaren arabera, gurasoek ezin dute ukatu edo saihestu beraien seme-alabei heziketa sexuala bermatzea, are gutxiago, gurasoak haurren eredu sexualak izanik. Beraz, heziketa sexuala hezkuntza formalean ez ezik, familiak ere bermatu beharreko alderdietako bat dela esan dezakegu; modu honetan, haurrak jasoko duen heziketa osoagoa izango baita.

Hala ere, gaur egun arazo bat bilakatzen ari da zenbaitentzat heziketa sexuala bermatzearena, izan ere, garai batean, informazio gabezia zuten gurasoek. Hori dela eta, heziketa sexualaren inguruko formazioa jasotzearen eta dauden arazoen inguruan informatzearen beharra ikusten da (Puerto, 1997). Gainera, informazio gabezia hori izatearen ondorioz, gurasoek beraien seme-alaben eremu honetako heziketa kalean ematea ahalbidetzen du. Hau da, gurasoek ez badute beraien seme-alamen heziketa sexuala bermatzen, hori komunikabideek, sare-sozialek eta abar egingo dute. Puertok (1997) aipatzen duen bezala, hurrei iristen zaien informazioaren %75a inguruetik jasotakoa da, gurasoek emaniko informazioa geroz eta gutxiago izanik.

Sexu-heziketa, aurretik aipatu dugun bezala, inplizituki edo esplizituki lantzen den zerbait da, baina ezinezkoa da ez lantzea. Hau da, sexuari buruz hitz egiten ez dugunean ere, honen inguruko ideia eta eragin bat sortzen ari gara hezigaiarengan. Adibidez, gaur egungo familia askotan ez dute sexu-harremanei nahiz sexualitateari buruz hitz egiten, modu honetan sexua tabu moduan ikustarazten delarik. Lopsek (1999) esaten duen bezala, sexualitatea zerbait pribatua da, erresebatutako era batean hitz egiten dena, askotan lagun oso intimo batekin. Azken urteetan gizarte ikuspegian sexuaren inguruko aldaketak egon diren arren, oraindik ere jendartean honek duen konnotazio negatiboa handia da. Norbait sexuari, masturbazioari edota bestelako gaii buruz hitz egiten hasten denean, familian arrotza eta deserosoa egiten zaigu, honela, sexuaren erreprimitzea elikatzen delarik. Beraz, orokorrean txikitatik zeharkako modu batean lantzen dugun alderdi pertsonal bat da sexu-heziketa aurrerago esperientzien atalean ikusiko den bezala.

Horregatik, garrantzitsua deritzogu gurasoei ohartaraztea haurrek mota honetako heziketa ere bermatu behar dutela. Hau da, ezinbestekoa iruditzen zaigu gurasoei heziketa sexualak haurren heziketan berebiziko garrantzia duela jabetzea. Halaber, gurasoek eskaintzen duten formazio honek, ezinbestekoa da jarrera positiboak adieraztea; modu honetan, haurrek erlazio afektibo sexual positiboak izango dituztelako. Hori horrela izanik, familiak sexualitatearen inguruko jarrera osasuntsu nahiz positiboak adierazi behar ditu (Puerto, 1997), beraien egin beharretako bat sexualitatearen inguruko jarrera positiboak sortzea delarik.

Hezkuntza informalean dugun beste osagai bat pornografia da. Pornografia, gehien bat, gaur egun, internet bidez kontsumitzen da eta TicBeat (2010) weborriak argitaratutako artikulu baten esanetan, interneten dauden web orrialdek %12 pornografia eskaintzen dute; horri zenbaki bat ezarriz gero 24.644.172 webgune ditugu. Pornografiaren kontsumoa errealitate bat da eta gaztetatik hasten den ohitura bat da. Pornhub (2016a) webguneak (munduko pornografia webgune eta enpresa handienetakoa) estatistika batzuk atera zituen urte amaieran balantze bat egin ahal izateko, herrialdeka banatu zituelarik bere estatistikak. Espainiar Estatuan zentratuz, munduko 13. kontsumitzaile handiena dugu eta pornografia kontsumitzaileen artean bakoitzak 8 minutu eta 4 segundo pasatzen ditu pantailaren aurrean jartzen denean. Adinari dagokionez, ARGIA (d.g.) weborriak datu interesgarri batzuk eskaintzen ditu: mutiletan, 15-17 urte bitarteko %53ak kontsumitzen du, 18-19 urte bitartean %71, iraganean datu hau %42an zegoelarik, eta 20-24 urteen bitartean lehen %47 zena orain %77 bilakatu da. Nesken kasuan, berriz, 18-19 urte bitartean %42ak kontsumitzen du pornoa, lehen %4 soilik izanik, eta 20-24 urte tartean ere %42ak kontsumitzen du, lehen adin tarte horretako neskek %7 kontsumitzen zutelarik. Azken datu bezala, Espainiar estatuan 4 pertsonatik 1 bakarra da emakumea pornografia kontsumitzerako orduan.

Datuak datu, begi bistakoa da pornografiaren kontsumoa ikaragarria dela eta beraz, gure bizitzetan sexu heziketa bezala jasotzen dugun tresna bakarrenetarikoa dela. Kontsumitzaileen inguruan, gizonak dira gehien kontsumitzen dutenak eta gainera gazteak direnetik. Pornografia industria bat da, eta industria honek besteak funtzionatzen duten bezala funtzionatzen du: eskaintza eskariaren bitartez. Horrenbestez, eskaria gizonak egiten dutena da, eta hori horrela izanik, industria pornografikoek eskaintzen dutena gizonentzako eginiko pornografia da, pornografia patriarkala. Interneten horrelako sareetan ibili izan baldin bagara, ikusi dugunaz jabetuz, emakumea objektu bezala tratatzen da, sexuari hertsiki lotutako bertan sartzen diren edertasun kanonak ere errealitatetik oso urrun geratzen direlarik. Dakigunez, gizon/emakume gutxiak dute 22cm-etako zakila eta 100tik gorako bular irmo bat.


Aurretik esan bezala, askok heziketa sexual bezala pornografia izan dute, eta heziketa sexual hau erralitatetik urrun geratzeaz gain, ematen den eredu patriarkala da eta beste hainbat kolektibo sexual minoritarioak alde batera uzten dira. Pornografian ikus ditzakegun datuen arabera, gazteen %71ak kontsumitzen badu eredu hori, erreproduzitzen ari dena eredu matxista hori da, zuzenki sexuari esleitzen dena. Hau, PornHub (2016b) webguneko ondoko grafikoan ikus dezakegu, non, lesbianak, emakume gazteak eta ama-ordeek protagonizatzen dituzten porno eszenak ikuskari gehien dituztenak diren.

Arriskutsua izango da beraz, pertsona gehienek beren bizitzan zehar jasotzen duten sexu-heziketaren zatirik handienak industria pornografikoan jatorria izatea. Argi dago, geure sexu-harremanak eta sexualitatea kontrolatzen dituenak, geure bizimodua guztiz kontrolatzeko boterea duela. Beraz, antolakuntza kapitalistarekin lotura egiten badugu, gazteen sexu-heziketa pornografia industria zapaltzaile handien esku uzteak, geure bizitzak kapital nahia soilik duen industria edo erakundeen esku uztea esan nahi du.

4. FEMINISMOA ETA SEXU-HEZIKETA

Aipatutako guztia kontuan harturik, argi dago feminismoak ere bere papera hartzen duela heziketa mota honetan. Sexu-heziketa lantzen duten autore gehienek, aipatutako generoen sexu-harreman zein jarrera ezberdinak azpimarratzen dituzte hauen normalizazioa ezabatzeko beharra aldarrikatuz. Sexu-heziketa, norberaren sexualitatea onartu eta harreman osasuntsuak finkatzean oinarritzen bada, ezinbestekoa dugu emakume eta gizonen arteko berdintasunera heltzeko heziketa bat ematea; gizarteko pertsona guztiek beraien burua onartu eta besteengandik ere onartuak izateko.

Feminismoak sexualitateari egiten dion ekarpena azaltzeko, honen historian esanguratsuak izan diren hiru olatuen aipamen bat egingo dugu. Gogoratu dezagun, feminismoaren lehen olatuak emakumezkoen eskubide legalak aldarrikatzen zituela, bigarrenak emakumeen eskubide sexualak eta bereziki, abortatzeko eskubidea aldarrikatzen zituen, hirugarrenak, berriz, emakumeen heteronormatibitatea edo identitate aniztasuna aldarrikatu zuen, arrazaz, etniaz, klasez, erlijioz eta sexualitatez. Feminismoaren azken olatua 1990. urtean abiatu zen



arren, XXI. mendeko feminismoak ere aldaketak izan eta bere ikuspegia zabaldu duela esan daiteke. Ikuspegiaren zabaltze horren adibide garbia dugu, Judith Butlerren (1999) *queer* teoriaren sortzailetzat hartzen den “*Gender Trouble. Feminism and the Subversion of Identity*” liburua. Aipatu bezala, sexualitatea generoari atxikituta doan “egoteko” modua da. Butlerrek (1999), gizarte ikuspegian normaltzat hartzen den emakume/gizon binarismo “natural” etik haratago, generoaren eraikuntza sozialaren garapena azaltzen du teoria filosofiko, psikologiko, soziologiko eta antropologikoetan oinarrituz.

Rubinen (1989) arabera, jarrera sexualen inguruko eztabaidak arazo sozial eta intentsitate emozionalak deskargatzeko baliabide bilakatzen dira askotan. Horren ondorioz, sexualitatea tentsio sozialeko garaietan interes berezi batekin landu behar da. Sexualitateak ere, bere barne-politika eta antolamendua ditu bere ezberdintasun eta zapalkuntza espezifikoekin batera. Gizarteko beste alderdi eta eremu batzuetan gertatzen den bezala, sexualitatearen antolakuntza formak edozein toki eta momentuetan gizakion eguneroko aktibitatearen isla dira. Beraz, interes-gatazken eta mugimendu politikoen eraginpean daude, bai kontziente eta baita inkontzienteki ere. Laburbilduz, sexua beti da politikoa.

Rubinen sexuaren teoria kontuan hartzen badugu, argi eta garbi ikus dezakegu feminismoak gure eguneroko bizitzetan duen garrantzia ere sexu-harremanetara ere zabaldu behar dugula, feminismoan oinarritutako sexu-heziketa bat landuz. Aipatu bezala, gure gizartean dauden zapalkuntza eta ezberdintasunak sexuan erreproduzitzen dira, emakumearen zapalkuntza gure harreman sexualetan ere ikusgarria delarik. Modu honetan, geure inguruan emakume eta gizonen arteko berdintasuna ez dagoen bezalaxe, gure harreman afektibo-sexualetan ere, emakumeak zapalkuntza egoera batean aurkitzen dira hauen garapen integrala nahiz osasuntsua albo batera uzten ditugularik.

Transfeminismo edo aipatutako *queer* teoriaren barnean, sexu-heziketari buruzko hausnarketa sakon bat egiten duen mugimendua dugu postpornoa. Pornotik postpornora salto handia dago, egin beharreko salto bat. Postpornoa deritza kritika eta sexualitate ez dominante baten eraikuntzaren errepresentazioari, non mugimendu feminista pro-sex, homosexual eta queer aurreratuak egongo diren (García del Castillo, 2011).

Postpornoak bere errepresentazioa eduki audiobisualetatik kanpo ere edukiko du, hau da, beste modu batez errepresentatzea ere ikusten du, adibidez, tailerren edo antzerkiaren bitartez. Betiere, queer mugimenduaren subkultura horretan emango den zerbait izango da. Postpornoaren osagai garrantzitsuenetariko bat enpoderamentuaz hitz egitea izango da. Annie Splinklek azaltzen duen bezala (Postporno terminoaren sortzaile eta aitzindaria), une oro, sexualki gutxituak eta minorizatuak izan direnen enpoderamentuaz hitz egingo da. Errepresentazioarekin jarraituz, postpornoak funtzioen analisia egingo du pertsonaien narrazioaren bidez, hots, narrazioaren bitartez enpoderamentua kasuak adieraziko dira. Beste hitzetan esanda, errepresentazio audiobisual bateko eszenetaz baliatuko da kritika hori egiteko eta enpoderamentua ikusi al izateko.

Postpornoak pertsona guztiak kontuan hartzen dituen eduki bat proposatzen du, non guztiak parte hartze duten. “Existen ahora los hombres, las mujeres, pero también el resto del mundo” (Bourcier, 2005). Esaldi honekin esan nahi duguna, zera da, bistaratu beharra dagoela minoria sexual hauek, queer mundu hori eta bistaratzeari buruz hitz egitean enpoderamentuarekin jarraitzen dugu. Bistaretzeko modu bat apropiazioa izan daiteke, hizkuntzaren apropiazioa, adibidez, espainiar estatuan, LGTB kolektiboak azkenaldian hitz bat bereganatu du, “transmaribollo”. Hitza bereganatzearekin gehiago ezagutzera ematen da, eta orduan, enpoderamentua gertatzen da, kanpo opresioak eraso bat gutxiagorekin geratzeaz gain. Preciadok (2008) hau esaten du:

“La pospornografía no será sino el nombre de las diferentes estrategias de crítica y de intervención en la representación que surgirán de la reacción de las revoluciones feminista, homosexuales y queer frente a estos tres regímenes pornográficos (el museístico, el urbano y el cinematográfico) y frente a las técnicas sexopolíticas modernas de control del cuerpo y de la producción de placer, de división de los espacios privados y públicos y del acceso a la visibilidad que estos despliegan”.

Esaldi honen bitartez, ulertzen dugu postpornoak tresna bikaina dela egoera hauek bistaratzeko eta aipatu bezala, borroka bati laguntza eskaintzeko.

Narrazioetara buelta eginez, ikus-entzunezko edukietan gako handi bat egon daiteke. Bertan, enpoderamentuaren errepresentazioa aktoreek eraman behar dute aurrera, akzioen bitartez egingo da eta honek egitura bat izan dezake. Greimasek (1987) dioen bezala, “está por entero centrado sobre el objeto del deseo, perseguido por el sujeto, y situado, como objeto de comunicación, entre el destinador y el destinatario, estando el deseo del sujeto, por su parte, modulado en proyecciones de adyuvante y oponente”.

Sujeto	Cuerpos de las minorias
Objeto	Apropiación de la representación explícita del sexo que antes les era negada
Destinador	Revoluciones feminista, homosexual y <i>queer</i> ; punk y DIY
Destinatario	Minorias ampliadas
Oponente	Régimen de control de la representación explícita del sexo, de los cuerpos y su sexo e industria pornográfica
Adyuvante	Micropolíticas de género, raza y sexualidad

Fuente: Elaboración propia a partir de Greimas 1987, 276

Taula eta esaldiek aurretik errepikatutako enpoderamentua errepresentatzen dute, baina errepresentazio estrukturalizatu batetik. Hainbat praktiken bitartez aurrera eramana, hizkuntza, akzioak edo aktoreen errepresentazio artistiko baten bitartez eginikoa.

Konklusio bezala, azpimarratu beharra dago postpornoa queer subkulturaren pean eman behar dela. Postpornoa eta enpoderamentua akzio politiko bat bezala hartu behar dira, gaur zapalduak direnen oihu bat bezala. Emakumeak eta minoria sexualak

dira borroka hau, akzio hau, aurrera eraman behar dutenak.

5. MITOAK

Gaur egun jaso dugun sexu-hezkuntzaren zati garrantzitsu bat pornografiaren bitartez izan da. Glaukoma taldearen “Gure Kaiola” kantuak dioen bezala, “pornografia izan da gure heziketa sexuala”. Hori horrela, atal honetan, ARGIA (2013) aldizkariak argitaratutako “Porno vs. egiazko sexua” atalean oinarritu gara. Hala, bertan adierazten diren datu ezberdinekin ondorioztatu dugu pornografian sexu eredu bat soilik eskaintzen dela, errealitatearen oso ezberdina. Pornografian gizonezkoen zakilak handiak dira, emakumeen aluetan homogenitate bat ematen da eta gainera, bien hanka tartetan oso ile gutxi ageri dira. Sexua nahi beste luzatu daiteke, amaierarik ez balu bezala. Hau da eskaintzen den sexua, gizartean eskuratu nahi dena.

Datuetan zentratuz, aktore pornoaren zakila 15-23 zm artean dagoela dio ARGIA-ko (2013) bideoak, zakil estandarra 13-18 zm inguruan dagoen bitartean. Honekin, ikusten dugu, gizartean zakil handiak nahi direla, hori dela bultzatu nahi dena. Gainera, porno izarrek oso ile gutxi izaten dute (bai emakume zein gizonezkoek). Errealitatean, aldiz, emakumeen %65ak eta gizonen %85ak ilea dute. Datu hau ikustean, pornografia gizartean isla zuzena dela ondorioztatzen dugu, izan ere, jendartean ere toki guztietan emakumeei depilatzerak bideratzen gaituzte, eta orain, geroz eta gehiago mutilen ere. Sexuari lotutako geroz eta kontsumo handiagoa egiten da. Honek erakusten digu heteropatriarkatua eta kapitalismoa eskutik helduta doazela. Bestalde, emakumeen alutan zentratuz, pornoan oso antzekoak dira guztiak, errealitatean itxura, tamaina eta kolore anitzetakoak daudela ukatuz. Datu honek, pornoan ematen den homogenitatea erakusten digu. Estandar bat bilatu nahi da, pornoko izarrek direnak eta gizarteko pertsona guztiak eredu honetara bideratu nahi dira.

Eredu heterosexual honetan, gizonezkoen eta emakumezkoen irudi zehatz bat soilik azaltzen da eta hori, orgasmoan ere islatzen da. Izan ere, mutilen kasuan, jende arruntak 10-12 minutu behar dituen bitartean berotzeko, pornoan aspertu arteko sexua dago. Errealitateak, berriz, beste gauza bat dio, hau da, gizonezkoen %75ak 3minutu baino ez ditu behar orgasmora iristeko. Emakumezkoen kasuan, aldiz, interneta emakumeen eiakulazioaz josita dagoen arren, %66ak baino ez du maiztasunez lortzen (ARGIA, 2013).

Orain arte ikusi dugu zein den pornografian ematen den eta hala gizartean, zentzu askotan, erreproduzitzen den edo eskuratu nahi den sexualitate eredu. Baina bada, pornografian ematen diren hainbat eredu, gizartean oso ohikoak ez direnak. Pornografian, esaterako, sexu lesbikoa edonon aurki genezake, gizonezkoen arteko sexua aurkitzea horren erraza ez den bitartean. Hala ere, errealitatean, emakumeen %11,5ak soilik izan dituela esperientzia lesbikoa dio ARGIA-ko (2013) bideoak. Bestalde, bideo pornoetan emakumeei alde guztietan sartzen diote zakila, hau da, uzki-sexua oso ohikoa den bitartean, errealitatean %40ak soilik probatu duela dio bideoak (ARGIA, 2013). Beste hitzetan esanda, erdia baino gutxiagok probatu du, zenbatek praktikatzen duen egunerokotasunean ez dakigu. Honetaz gain, pornografian gizonen eiakulazioa emakumeen aurpegian botatzea oso ohikoa da.

Honek, jendarteko gizon askorik morbo handia sorraraztea ekarri du. Esan behar da, ARGIA-ko (2013) bideoan azaltzen den bezala, ekintza hau guztiz ez-ohikoa dela, izan ere, emakumeen %22ak soilik onartuko luke aurpegian hazia botatzea. Gainera, hauen artean %30ak baino ez luke irentsiko. Azkenik, pornografian ere oso ohikoa da hirukoteak egitea, baina errealitatean inor gutxi ezagutuko dugu hau praktikatu duenik. Hirukotea egin duten emakumeen kopurua %20tik beherakoa da (ARGIA, 2013).

ARGIA-ko (2013) 2 minutu besterik irauten ez duen bideo xume honek oso ongi adierazten digu pornografia eta egiazko sexua guztiz ezberdinak direla. Pornografiak eskaintzen dizkigun ereduak ez dira jendartearen isla. Bideo honek erakutsi digu pornoaren industria eredu zehatz batzuetan oinarritzen dela, emakume eta gizon eredu jakin batzuetan, non sexua errealitatearen oso ezberdin irakats nahi diguten (ARGIA, 2013).

6. ESPERIENTZIAK

Atal honetan, gizarteko isla bilatu nahian, bizitzan zehar izan dugun hezkuntza sexualari buruzko testigantzak jasotzea pentsatu dugu. Horretarako, zer hobeto lan hau egiten ari garenon testigantzak azalaraztea baino. Hori horrela, gu boston esperientzia txiki batzuk idatzi ditugu, bizitzan izan dugun sexu-heziketa eskolan, familian... orokorrean jendartean zentratuz.

Ainhoa Airaren sexu-heziketa

Nire iraganean begirada jartzen badut, konturatzen naiz sexu-harreman zein sexualitateari buruz jaso dudan informazioa oso puntuala izan dela. Hasteko, txikitan ez nuen sexuari buruzko eragin zuzenik jaso, baina nolabait, familia, eskola edo bestelako kanpo-eragileengatik niretzat hau zikina eta txarra zen. Inoiz ez dut sexuaren inguruan hitz egin familian modu lasai eta eroso batean, ezta sexualitatearen inguruan ere. Nire gurasoek sexu-harremanak izaten zituztela pentsatzeak nazka ematen zidan eta baita honi buruz hitz egiteak ere. Eskolan jaso izan dudan eragin bakarrenetakoa izan da sexu-heziketako ordu pare batzuetako tailerra. Bertan, sexu-harremanei buruz hitz egiten ziguten gure bizitzetan esperimintatzeko fasera iristen ginenean, hau da, 14 edo 15 urterekin. Tailer hauen inguruan dudan oroitzapena, txortan egitea, hilerokoa, edota antikonzeptiboak buruzkoa galderak zein elkarrizketak dira. Hau da, nire ustetan, sexu-heziketa kontzeptua erabiltzen zutenean, erreproduzioari edota “amodioa” egiteari soilik egiten zioten erreferentzia, neskek haurdun geratzeko genuen arriskua behin eta berriz azpimarratuz. Aldi berean, adin horretan etxean jaso izan nuen eragina berdina zen, mutila nuela konturatu zirenean protekzioa erabiltzeko errepikatzen zidaten behin eta berriz, “asko gozatu” edota “sexua zeure buruari plazerra

ematea da, ez besteei asebetetzea” bezalako esamoldeak behin ere entzun ez ditudan bitartean.

Amorru gehien ematen didana ordea zera da, nire bizitzan MASTURBAZIOA hitza gertuko pertsona batengatik inoiz jaso ez izana. Txikitan masturbatzen edo igurtzen hasi nintzen garaietan, ez nekien ondo zertan ari nintzen baina zerbait gaizki egiten ari nintzela sentitzen nuen, ez bainintzen neure buruarekin ondo sentitzen. Ez nekien masturbatzen ari nintzela, eta hori zerbait arrunta zela. Nerabezaro garai hasi zenean, konturatu gabe, masturbatzeari utzi nion. Beti entzuten nituen nire gelako mutilak semenari eta behatzak sartzeari buruzko iruzkin higuigarriak egiten, baina nik ez nuen ezagutzen mundu hori, ez nekien zeri ari zitzaien erreferentzia egiten eta nazka adierazten nuen mutilek halako gaietara buruz hitz egiten hasten zirenean. Gero, 17 urterekin hasi nintzen berriz ere masturbatzen, eta egiten ari nintzenaren inguruko kontzientzia hartzen. Berandu xamar, mutil baten masturbazio-esperientzien aldean, ezta?

Amaitzeko, esan beharra daukat nire sexu-heziketa emakume baten sexu-heziketa eta gizarteratze prozesuarekin bat etorri dela argi ikusten dudala orain. Mutilek beraien sexu-harremani buruz inongo arazorik gabe hitz egiten zuten bitartean, sexua betidanik izan da neure burua lotsarazi eta tentsioan jartzen zuen gai bat. Emakumeoi, geure sexualitateaz lotsarazten eta geure burua erreprimitzen erakusten digute kanpotik jasotzen ditugun eragin guztiekin eta nire esperientzia pertsonala honen adibide garbia da.

Maddi Txintxurretaren sexu-heziketa

Nire bizitzan zehar jaso dudana sexu-heziketaz pentsatzen hasterakoan, ezer gutxi jaso dudala eta jaso dudanak kutsu matxista izan duela ohartzen naiz. Ni neu emakume izanik, esan beharra dut, mutilek izan duten sexu-heziketaren oso ezberdina jaso dudala. Hala, txikitatik jaso dudana sexu-heziketa erreproduktzioa bideratua izan da, plazera alde batera utziz. Ez dut hemen sartu nahi, baina honek kristautasunarekin lotura zuzena duela uste dut. Txikitatik irakatsi didate (bai eskolan eta baita familian ere) hanka tartean dudana haurrak izateko dela. Gainera, esango nuke (oraindik ere entzuten da) eskuak bertan nituenean kentzeko esaten zidatela, hau da, nire sexuaren esperientzia ukatzen zidatela.

Eskolan jaso dudana heziketan zentratuz, garrantzirik ematen ez zaion gai bat bezala tratatzen dela esango nuke, errealitatean duen garrantzia alde batera utziz. Bertan, gaia inplizituki egunerokotasunean lantzen den arren, esplizituki soilik tailer batzuetara mugatzen da. Tailer hauetan, prebentziorako informazioa ezberdina eman ondoren, guk sexua nola bizi dugun galdera ezberdinen bidez lantzen zela esango nuke. Izan ere, inkesta ezberdinak betetzen genituen, informazioa eskuratzeko. Inkesta hauetan, ea masturbatzen ginen bezalako galderak egiten ziren. Erantzunak analizatzean, oso argi gelditzen zen zein den emakumeok eta gizonezkoek jaso dugun sexu heziketa. Berriz ere, emakumeak gara sexutik baztertuak.

Nerabezaroa garai oso garrantzitsua eta adierazgarria iruditzen zait gai honetan. Momentu honetan hasten gara norberaren sexuaren inguruan esperimentatzen. Momentu honetan ikusten dugun sexualitatea guztiz matxista izaten da (pelikuletan, telesailetan, iragarkietan...) eta hala, gu geu ere hori errepikatzen hasten gara. Nire kasuan ere, horrela izan zela esango nuke, izan ere, hasiera batean sexua soilik falozentrismoan oinarritzen da, bikote heterosexualetan, noski. Sexua mutilaren plazera izatera bideratzen da, neskaren orgasmoa edo ejakulazioa alde batera utziz. Ikusten nituen sexuaren irudi guztiak mutilaren zakila emakumearen bulban sartzen izaten ziren. Baina hau al da benetan sexua? Nori interesatzen zaio sexu-heziketa eredu honetan hezitzea pertsonak? Niretzat, nire sexu heziketaren garapenean momentu eta abiapuntu oso garrantzitsua emakume asanbladan hastea izan zela esango nuke. Izan ere, bertan, sexua beste modu batera ikusten hasi nintzen, beste heziketa bat jasotzen alegia.

Maiden Usandizagaren sexu-heziketa

Gaur egun aldatzen doan zerbait dela egia den arren eta garai batean imajinatu ere ezin zitekeen zerbait izan arren, ikastetxeetan edota familian sexu heziketa bermatzea, pixkanaka aldatzen doan zerbait dela esango nuke. Halere, horrek ez du esan nahi sexu heziketa bermatzen denik. Izan ere, nire kasuan behintzat, ikastetxean jasotako heziketa profesional batek emandako tailer batzuetan oinarritzen zen, non gehienbat prebentziora bideratuta zegoen. Hala ere, gogoan dut nola behin, tailer horietako batean, kondoa nola jarri behar genuen erakutsi zigutela.

Familian ere, sexuaren inguruko heziketarik jaso dudarik ezin esan nezake. Honen inguruan hitz egin edota edozein kezka azaltzeko atea beti irekia izan dudan arren, heziketa bat jaso dudarik ezin esan nezake. Gainera, nik uste, gaur egungo gurasoek uste dute ikastetxeek bermatzen dituzten heziketa mota hori eta horregatik ez dute fokua heziketa mota horretan jartzen. Ikastetxeek erakutsiko dituzten heziketa uste dute eta horregatik, ez diote ematen garrantzirik heziketa sexualari.

Beraz, sexu heziketa, norberak ikasten duen ikasgai bat dela esango nuke. Bizitzan zehar esperimentatuz eta gizarteak eskaintzen dizkigun baliabide ezberdinei helduz (liburuak, filmak, pornografia ...) bereganatzen dugula honen inguruko informazioa uste baitut. Halere, gizarteak eskaintzen digun informazioa eta errealitatean dena ezberdintzen jakitea ere behar beharrezkoa ikusten dut; saltzen dituzten informazioa ez delako errealitate uste baitut.

Naiara Calveteren sexu-heziketa

Zintzo izateko ez dut sexu-heziketa asko jaso nire bizitzan zehar. Eskolari dagokionez, ez nuen izan sexualitateari bideratutako irakasgaririk eta ez dut gogoratzen beste edozein

irakasgaireren bat noizbait sexualitatearen inguruko informazioa eman zuenik. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bat edo bi aldiz (gehienez) kanpoko aditu bat etorri zen informazioa ematera, eta hezkuntza formaleko atalean aipatu dugun bezala, informazio hau prebentzioa zuen helburu gisa. Beste hitzetan esanda, ez zidan informaziorik eman gozamenaren inguruan, ezta harreman sexualak izateko era ezberdinen inguruan ere; horren ordez, prebentziorako metodo ezberdinak ezagutu nituen. Argi dago helburua haurdun ez geratzea edo gaixotasunak ez transmititzea zela, gozamina, plazera eta masturbazioa bezalako alderdiak kanpo geratzen zirelarik. Era berean, sexualitate mota ezberdinen inguruko berririk ez nuen izan. Beti gailendu izan da eredu heterosexuala, hori baita seme-alabak izateko modu “normalena”, eta gainera, ezberdintasun handia ikusi dut mutilak eta neskak sexu heziketan hezteko garaian. Goiz hasi ziren mutilak sexuari buruzko komentarioak eta keinuak egiten, eta nik deserosoa eta lotsatuta sentitzen nintzen horren aurrean, ez bainekien zer zen, eta jakitekotan, helduen gauza bat iruditzen zitzaidalako.

Honen inguruko informazioa gizartetik jaso nuen, hau da, telebistatik, pelikuletatik, liburuetarik edota kalean ikusitatik, eta askotan ideiak oker bat osatzera eramane zidan. Hau da, iturri hauek sexu-harreman idealak plazaratzen dira, baina oso urrun daude nire eta denen errealitatetik. Familian ere, nahiz eta konfiantzazko giro batean hezi naizen eta zenbaitetan gai honen inguruan hitz egiten dugun, ez dugu lortu sexualitatearekiko tabua guztiz ezabatzea, lotsa presente egon baita beti. Gainera, hitz egitekotan, eskolan bezala, gaia prebentzio metodoetan zentratu gara, deserosotasuna sentimendu nagusia izan delarik. Eta badakit nire familian ahaleginak egin direla lotsa kentzeko baina, inguru honetatik jasotakoa pisu handia dauka eta zaila izan da tabua bat bezala ikustea.

Laburbilduz, jaso dudana heziketa sexuala ez da izan ez asko ez kalitatezkoa. Jakintza guztiak hazi ahala nire kontura eskuratu ditut, baina heziketa oso bat jaso gabe, ez eskola ez familia aldetik. Gainera, orain, argi ikusten dut nire esperientziak bat egiten duela oinarritapen teorikoan zehar aipatutakoarekin. Beste arloetan bezala, ezberdintasunak daude gizon eta emakumeen artean, izan ere, emakumeoi sexualitatea gauza txar bat bezala aurkezten digute, geure burua erreprimitzen erakusten digutelarik.

Unai Beitiaren sexu-heziketa

Heziketa deitzea ez zait justua ere iruditzen, baina, azken batean ikasten dugun guztia hezitzaiekin bat datorrela esan daiteke. Baina, nik gaur arte eta gaur egun ere, izan dudana sexu heziketa hutsala izan da eta gaur arte isilpean tratatzen nuen gai bat bezala nuen, taboo bat izango balitz bezala, zerbait gaizki egingo banu bezala, debekatua den zerbait.

Ezer gutxitarako balio izan dit, urtean behin etortzen ziren hezitzaileak kondoi bat nola jartzen azaltzera, nik izan dudana heziketa sexual bakarra orain dela urte gutxi batzuk arte pornografia izan da. Hortik aurrera sexuaren munduan niretzako ezezaguna izateaz gain,

beste ezer existitzen ez zela uste nuen, bizitza errealaren pornografia bezala uste duzu 16 urte dituzunean, hor dago arazoa. Bizitzan aurrera zoazen heinean ohartzen zara ez dela horrela orain arte ikusitakoa, fikzio soila dela eta gizarteak irakatsi dizuna beste hain beste. Eskolak ez digu sexuaren inguruko beharrezkoa den ikaskuntza osasuntsu bat eman eta familian gaur egun txantxak egin arren eta gutxienez taboo hau umore puntu batekin hartu arren, ez da inoiz hitz egin horrelako gauzetaz. Sexu aniztasuna alde batera uste duen sistema bat ikusi dut. Arazoa bistakoa da eta denon arazoa da, gizarte gaixo baten arazoa.

Horretaz gain, mutil eta neskei modu ezberdin batean hezi digutela uste dut, sexu heziketan ere. Neskei plazera sentitzea errefuxatu zaiela uste dut, gizarte matxista bateko sektore zapaldua izan da. Sexu heziketaren bitartez, jarrera matxista ugari zabaldu dira eta nerabeak dira hortik gehien jasotzen dutenak, adin garrantzitsu bat baita eta bertan izaten dugun bilakaeran jarrera matxistekin bonbardatzen gaituztela ikusi dut.

Konklusio bezala, gaur arte jaso duguna eraldatu beharrean gaude eta feminismoak proposatzen dituen bideak interesgarri eta beharrezkoa iruditzen zaizkit. Sexu heziketa beste modu batez ulertzea posible delako eta alternatibak existitzen direlako sistema honi aurre egiteko.

7. HAUSNARKETA

Behin informazio guztia analizatu, autoreen iritziak eta ikuspegiak ikusi eta gure esperientzia guztiak irakurri eta hauen inguruko hausnarketa egin ondoren, ama-komuneko elementuak argi eta garbi ikusten dira eta ondorio batzuk atera ditzakegu.

Bazterketa eta integratze prozesuak oso ohikoak dira gure gizartean eta honetan ere kasu argi bat daukagu, izan ere, bizi dugun eredu hetero patriarkalak, non gizon zuria heterosexualaren dominioa azpimarratzen den, heziketa sexualean eragina dauka. Ondorioz, emakumeekiko eta “normaltzat” ematen diren sexualitate ereduetatik kanpo daudenekiko bazterketa bat aurki dezakegu.

Hasteko, begi-bistakoa da eskolan ematen de heziketa oso eskasa eta ez kalitatezkoa dela. Gure esperientziak kontuan hartuta, jasotako heziketa sexuala oso prekariora izan dela ondorioztatu dezakegu, kondoiaren edo hilerokoaren inguruko pare bat tailer iturri nagusiak bihurtuz. Hau horrela izanik, informazioa erreproduktzioan oinarritzen dela argi eta garbi ikusten dugu, helburu nagusia espeziea bizirik irautea izanik, ama izatea, alegia. Honen ondorioz, neskak dira heziketa-sexualeko klaseen hartzaile nagusiak, baina ezin izango luke urrunago egon integratze prozesu batetik, esan bezala, emakumeei ama izateko hezten baitzaie, prebentzioa eta kontentzioa nabarmenduz, eta gozamina eta desioa albo batera utziz.

Gure esperientzia pertsonalak ikusita, mutila denak ere heziketa eskasa jaso du, baina ohikoagoa da hauen artean heziketa sexuala osoago bat egotea.

Eta emakumeak ez dira soilik esparru honetatik kanpo daudenak, intersexualitatea aipamen berezia behar baitu. Nahiz eta aurrerapenak egin diren, oraindik ere zaila egiten da homosexualitatearen eta beste sexualitate moten inguruko informazioa jasotzea, biziraupena helburua izanik, erlazionatzeko modu bakarrez hitz egiten delako, “normala” dena: heterosexuala.

Hau horrela izanik, zer motatako gizartea espero dugu? Nolako pentsamoldea izango dituzte gaur egungo gazteek? Ba, guk izan ditugunak, hain zuzen ere, hau da, sexualitatea zerbait txarra dela, erreprimitua izan behar dena eta normalena neska eta mutilen arteko harremanak direla. Hau ikusita, ezin dugu espero gizarte osasuntsu bat heztea. Hezkuntza formala izango da oinarritzko baloreak bereganatzeko espazioa, baita gizartean bizitzeko beharrezkoak diren tresnak lortzeko gunea ere eta horregatik, tresna baliagarri bezala erabili behar dugu.

Familian jasotako heziketa ez du lagundu inondik inora. Familia gure sozializatzeko lehengo agentea izanik, uste dugu paper garrantzitsuagoa bete beharko lukeela heziketa honetan, beti deserosotasuna eta lotsa gailendu baitira. Ze familia ez da urduri jarri sexualitatearen inguruko txarla iristen denean? Seme-alabak eseri eta gurasoek, ahal duten moduan, hitzaldi ez oso luzea eta azkarra ematen dute, euren konpromezuarekin bete dutela sentitu nahian. Hemen ere prebentziorako informazioa jasotzen dugu, plazerari tokirik utzi gabe. Familiaren esparruan, ohikoagoa da gizonen artean humore puntu bat hartzea, txantxak eta bromak eginez, emakumeen kasua, aldiz, serioagoa izanik. Sexua zerbait naturala izanik, honekiko ikuspegia aldatzeko beharrean gaude eta informazio aberatsa eskaini gure txikiei.

Beraz, eta orokorrean hitz eginda, gure kasuetan, neskak zein mutilak heziketa puntuala jaso dugu, baina ezin dugu ukatu, orokorrean, emakumeek eta gizonak jasotzen duten informazioa oso ezberdina dela gizarte matxista honen ondorioz. Emakumea berriz ere baztertua da, eta objektu bat bezala tratatzen zaio, gizonak gozatzeko objektua. Sexu aniztasunak ere ez du egoera ezberdina jasaten, homossexualitatea eta transexualitatea bezalako alderdiak beti izan baitira errefuxatuak.

Honi guztiari ez dio mesede egiten gizartetik jasotzen dugun informazioak, hau da, pelikuletatik, telebistatik edota pornografiatik, izan ere, bertan egoera batzuk azaltzen zaizkigu non ia perfekzioa azpimarratu daitekeen, eta hau oso urrun dago errealitatetik. Beraz, gaur arte jaso duguna eraldatzeko beharra sentitzen dugu. Horretarako, feminismoak proposatzen dituen bideak erabili ditzakegu, sexu heziketa beste modu batez ulertzeko bidea irekitzen delako eta alternatibak plazaratzen direlako sistema honi aurre egiteko.

feminismoaren inguruko hausnarketa

8. ERREFERENTZIAK

ARGIA (d.g.). *YouPorn belaunaldia: mitoa ala errealitatea?* On line: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2404/youporn-belaunaldia-mittoa-ala-errealitatea> [Azken ikustaldia: 12/2017]

ARGIA (2013). *Pornoa VS. egiazko sexua.* On line: <http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/pornoa-vs-egiazko-sexua> [Azken ikustaldia: 12/2017]

Bourcier, M. H. (2005). *Sexpolitiques. Queer Zones 2.* París: La Fabrique

Butler, J. (1999). *Gender trouble.* New York: Routledge

Caballos, M. (2011). *La construcción de la masculinidad en los centros de educación secundaria: etnografía sobre el aprendizaje del género y la sexualidad en la cultura escolar asturiana.* Universidad de Oviedo: Tesis doctoral.

Correa, P., Jaramillo, I. & Ucrós, A. M. (1972). Influencia de la educación sexual en el nivel de información y en las actitudes hacia la sexualidad. *Revista Latinoamericana de Psicología*, 4(3), 323-334.

Epstein, D. & Johnson, R. (1994). On the straight and the narrow: the heterosexual presumption, homophobias and schools. In D. Epstein (Ed.), *Challenging lesbian and gay inequalities in education* (pp. 197-230). Buckingham: Open University Press.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultur Saila (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana.* On line: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicacion_es_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf [Azken ikustaldia: 11/2017]

García del Castillo, A. (2011). Asalto al poder en el porno: apropiación y empoderamiento en las narraciones postpornográficas. *Icono14*, 9(3), 361-377.

Greimas, A. J. (1987). *Semántica estructural: investigación metodológica.* Madrid: Gredos

Lopes, G. (1999). *O Corpo Educado: Pedagogias da sexualidade*. Belo Horizonte: Auténtica.

Morgade, G. (2006). Sexualidad y prevención: discursos sexistas y heteronormativos en la escuela media. *Revista del Instituto de Investigaciones en Ciencias de la Educación*, Facultad de Filosofía y Letras, UBA.

Puerto, C. (1997). La familia, escuela de educación sexual. *Revista de Ciencias y Orientación Familiar*, 15, 51-67.

PornHub (2016a). *Así se consume porno en España*. On line: <http://www.elmundo.es/f5/2016/01/07/568e9806ca4741bd398b45a0.html> [Azken ikustaldia: 12/2017].

PornHub (2016b). *PornHub's 2015 Year in Review*. On line: <https://www.pornhub.com/insights/pornhub-2015-year-in-review> [Azken ikustaldia: 12/2017].

Preciado, B. (2008). Museo, basura y pornografía. *Zehar: revista de Arteleku-ko aldizkaria*, 64, 38-67.

Rogers, M. (1994). Growing up lesbian: The role of the school. In D. Epstein (Ed.), *Challenging lesbian and gay inequalities in education* (pp. 31-48). Buckingham: Open University Press.

Rubin, G. (1989). Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad. En C. Vance (Eds.), *Placer y peligro: explorando la sexualidad femenina* (pp. 113-190). Madrid: Revolución.

Sanctuary, G. (1971). Educación sexual y consejería matrimonial. *En Grupo Interdisciplinario de Estudios sobre Educación Sexual*. Colombia: Conclusiones del Seminario Colombiano de Educación Sexual.

TicBeat (2010). *Las estadísticas completas de la pornografía online - Infografía*. On line: <http://www.ticbeat.com/tecnologias/estadisticas-completas-pornografia-online/> [Azken ikustaldia: 12/2017]

Torriente, N. et al (2010). Conocimientos elementales sobre educación sexual en alumnos de una escuela secundaria básica urbana. *Revista Habanera de Ciencias Médicas*, 9(4).